

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Argi dago bezeroak edozein enpresaren oinarria direla. Bezeroen segmentazioaren arabera hainbat merkatu mota aztertu eta gero, ikusi dugu gure xede-publikoa merkatu masiboa dela. Izan ere, gure merkatua, antzeko beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaile-talde handi batek osatzen du. Horretaz gain, routerra eskaera handia duen produktua denez eta biztanleriaren gehiengoak behar duenez merkatu mota honetan sailkatzen da.

Gure publiko objetiboa, kalean, etxean, beste herri batean, hau da, edozein lekuetan Interneta izan nahi duten pertsonak izango dira. Routerra, orain arte etxean bakarrik erabili izan ohi da. Horren ondorioz, pertsona askok gastu gehigarri bat izan dute datu mugikorrek kontratatzerakoan, eta denok dakigunez, gaur egun ez dira batere merkeak. Hori dela eta, gure router eramangarria integratuta duen mugikor zorroari esker bai etxean, bai kanpoan erabili izan ahalko da, gastu gehigarri hori deusestatuz.

